

## OINARRIZKO BALIABIDEAK

Gure enpresarako behar izango dugun kapitala horrela lortuko dugula pentsatu dugu.

Hasteko, **hasierako kapital inbertsiorako** bakoitzak 2.500€ jarri ditugu, lau bazkide garenez, guztira **10.000€** dira. Hori nahikoa ez denez gastu finkoak eta totalak estaltzeko, hurrengo aukeretan azalduko dugu zein beste laguntza eskatuko ditugun.

**Bigarren aukera bezala**, diru-laguntzak eskatzea komeni zaigula uste dugu, gure gastuei (112.785 €) aurre egiteko. **Kooperatiba** bat garenez, diru-laguntza desberdinak lortzeko aukera izango dugu.

**Hasierako kapitala 10.000 €**-koa da, horregatik, **erakunde desberdinekin** gure enpresaren egoera ziurtatuko dugu.

- **Gazte Enpresarietzako eta Kooperatibentzat** diru-laguntzak eskatu nahi ditugu. Laguntza hauek **alokairua** eta **enpresako makinak erosteko** erabiliko dira. Enpresa berria eta txikia garenez, beste enpresa antzekoei eskaintzen dioten berdina emango digutela pentsatzen dugu. Hau da, gastuen %20a, zehazki, **22.557 €**.
- **Gastu operatiboetarako laguntzak** ere jasoko ditugu. Zehazki, **langileen gastuak** eta **marketing eta publizitatearako**.


Laguntza horiek, **Eusko Jaurlaritza** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia** erakundeetatik lortuko ditugu.



**Hirugarren aukera bezala**, diru-laguntzen ondoren, bankuari **mailegua** eskatzea (falta zaizkigun gastuak estaltzeko) erabaki dugu.

Horretarako, beharrezkoa izango da negozio plan sendoa aurkeztea, gastuak eta diru-sarrerak ondo azalduz, bankuak mailegua onartzeko.

**10.000 €-ko mailegua** izango litzake. Mailegu horrekin, behar ditugun **baliabideak lortu** eta enpresaren **lehen unitateak ekoiztuko genituzke**. 10.000 €-ko mailegua izanez, 5 urtetan ordaindu beharko genuke %6.9 interesarekin. Horrek, hilero **197,54€** inguruko kuota ordaintzea suposatuko luke.



Oraingoz, **crowdfunding** metodoa ez dugu erabiliko. Baina ez dugu baztertzen etorkizun batean behar dugun zerbait izan daitekelako.

**Inbertsioa** ez dugu erabiliko enpresa kooperatiba bat garelako eta bazkide guztiak botere berdina dugulako. Urte bukaeran ez diogu inbertitzaile bati gure enpresan inbertitutako kapitala interes handi batzuekin bueltatu nahi. Horregatik, nahiago duguna bazkideen artean irabaziak banatzea da.